



JOSU ARTUTXA

TOLOSA

FOLK JAIALDI ARRAKASTATSUA

Egoera oso ezohikoan ospatu da Tolofolk, baina antolatzaileak «oso pozik» daude jaialdiaren lehen edizioak izan duen erantzunarekin; 1.200 ikusle baino gehiago izan ditu, eta bigarren edizioa izango duela baieztatu dute // 3

Hondakinak lurrean uzten dituztenei isunak jarriko dizkiete

Amasa-Villabonako Udalak esan du edukiontzietatik kanpo lurrean uzten diren hondakinen kopurua igo egin dela // 2

Lizartzako ura Ur Kontsortzioak kudeatuko du

700.000 euroko aurrekontua onartu du Lizartzako Udalak 2021erako; ohiko gastuak mantentzeko ahalegina egin dute, eta murrizketak egin dituzte inbertsioetan // 5

Espainiako selekzioaren egonaldian izan dira

Tolosaldea IKTko Nahia Garrido igerilaria eta Joseba Zubeldia teknikaria Espainiako selekzioaren egonaldian izan dira; bizitako esperientziarekin «oso gustura» daude // 7

Burujabetzaz hausnartzeko hitzaldiak antolatu ditu Ernaik Anoetan

Gaur izango da lehen hitzaldia, eta denera hiru izango dira; «herri are eta zatituagoa bihurtu gara», adierazi du Ernaik // 2

Erik Jakak Baikorekin jokatu du maiatzaren 1etik aurrera

Lizartzarrak Asperekin zuen kontratua eten du, eta Baiko Pilotarekin sinatu du 2024ko abendura arte luzatuko den akordioa // 7



Usabal Ind., 12- 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com



ABIADURA NEURTZEKO GAILUAK IRURAN

Irurako erdigunea zeharkatzen duen errepidetik zenbat ibilgailu pasatzen diren eta ibilgailu horiek daramaten abiadura neurtzeko gailua jarri dute Kale Nagusian. Aspaldiko kezka dute herritarrek trafiko dentsitatearekin eta iaz egindako neurketa baten arabera egunero 6.000 autok zeharkatzen dute errepidea, askok behar baino abiadura handiagoan. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan gaia bideratzeko lanketa egiten ari da udala. J.M.

Hitzaldi zikloa antolatu du Ernaik Anoetan, gaur hasita

Burujabetzaz hausnartzeko aukera izango da antolatutako hiru hitzaldietan; herritarrak parte hartzera gonbidatu dituzte

Erredakzioa Anoeta

Ernaik hitzaldi zikloa antolatu du Anoetan. Gazte antolakundek esan duenez, azken hilabeteetan burujabetza materialaren ezintasuna geratu da agerian eta sistema kapitalistaren hutsunak azaleratu dira: «Herri bezala erabakitzeke ezintasuna, Madril edo Parisetik diseinatutako politikak eta barne mugak itxita. Herri are zatituagoa bihurtu gara».

«Impasse» egoeran honetan burujabetzaren eta eraldaketa sozialaren beharra inoiz baino agerikoagoa dela uste du Ernaik; «sozialismoa eta feminismoa gauzagarri egingo dituen independentzia nahi dugu, zapalkuntzarik gabeko gizartea ahalbidetuko duen Euskal Errepublika helburu».

Testuinguru horretan, Ernaiko kideek burujabetzaz hausnartzeko hitzaldi zikloa antolatu dute datozen asteetarako Anoetan eta herritarrak parte hartzera gonbidatu dituzte. Hitzaldi guztiak herriko eragileen lokalean izango dira. «Eraldaketa soziala eta burujabetza ditugu aterabide, antolakuntza eta borroka dira gazteon lanabes, eta gu ez gaude inoren zain», esan dute Ernaitik.

HITZALDI ZIKLOA

Apirilak 14, gaur

18:30. Iratzar fundazioko Andoni Olariagak eskainiko du *Burujabetzaren egungo korapiloak* izeneko hitzaldia eragileen lokalean

Apirilak 22, osteguna

18:30. *Ekonomia sozial eraldatzailerak* egunerokotik burujabetzak eraikitzen hitzaldia eskainiko dute eragileen lokalean. Andoni Mikelarena Olatu Koop-eko kidea ariko da azalpenak ematen.

Maiatzak 6, osteguna

18:30. Urko Aierbe Euskal Herrian Euskaraz-eko arduradunak *Burujabetza Euskal Herri euskaldunerantz* hitzaldia eskainiko du Anoetako eragileen lokalean.

Hondakinak lurrean uztea zigortuko dute

Amasa-Villabonako Udaltzaingoak jarraipen berezia egingo die edukiontzitik kanpora utzitako hondakinei

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako udal garbiketa zerbitzuetako langileek eta Udaltzaingoak azken aldian edukiontzietatik kanpo lurrean uzten diren hondakinen kopurua igo egin dela egiaztatu dute eta Amasa-Villabonako udal gobernu taldeak egoera honekin amaitzeko neurriak hartuko dituela jakinarazi du.

Honakoa da udal gobernuak sare sozialen bidez zabaldu duen mezua, hondakinak lurrean botata agertzen diren argazkiez la-

gunduta: «Horrela daude gaur herriko edukiontzien guneak. Zer gertatzen ari da? Hau onartezina da. Udalak dituen bitarteko guztiak erabiliz, jokabide zikin eta arduragabe hauen kontra joko du zalantzarik egin gabe. Ez dugu beste alde batera begiratuko».

Udal ordezkariak gogoratu dute hondakinak edukiontzietatik kanpo lurrean uzteak 90 euro eta 450 euro arteko isuna dakarrela eta Udaltzaingoak jarraipen berezia egingo diola gai honi.



Edukiontzietako baten ondoan pilatutako hondakinak, joan den astean. ATARIA

Begiraleak hautatzeko prozesua martxan jarri dute Zizurkilen

ZIZURKIL // Udaleku irekiak antolatuko ditu udalak aurtengo uztailean. Bertan lanean arituko diren begiraleak hautatzeko prozesua martxan jarri dute dagoeneko. Izen emateko epea apirilaren 30ean amaituko da eta hautagaiek, besteak beste, herrian erroldatuta egoteaz gain, euskara ondo menderatu beharko dute.

Sendabelarren inguruko ikastaroa antolatuko dute

ANOETA // Apirilaren 19tik maiatzaren 24ra sendabelarren inguruko ikastaroa eskainiko dute Anoetan. Astelehenetan izango dira saioak 18:00etatik 20:00etara eta Sara Letamendia izango da irakaslea. Liburutegian edo *kultura@anoeta.eus* helbidean eman daiteke izena eta gaur da azken eguna horretarako. 60 euro kostako da ikastaroa.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Kutsatutakoen kopuruak nabarmen egin du gora

28 positibo izan dira azken egunean Tolosaldean; ospitaleetako presio asistentzialak nabarmen egin du gora eta 430 pertsona daude bertan, duela astebate baino 66 gehiago

Erredakzioa Tolosa

Tolosaldean COVID-19an positibo eman dutenen kopuruak ez du behera egiten. Ostiraletik igandera 86 atzeman zituzten, eta atzo zabaldutako datuen arabera, astelehenean 28 pertsonak eman zuten positibo; Tolosan 13, Ibarran 4, Alegian, Berastegin, Amasa-Villabonan eta Zizurkilan bina eta Amezketan, Anoetan eta Asteasun positibo bana.

Azken datuei erreparatuta, 9.313 test egin zituzten herenegun, eta horietatik, 726 (%7,8) izan ziren positiboak, 315 Gipuzkoan. 5.000 biztanletik gorako eskualdeko herrien kasuan, Amasa-Villabonan (507) eta Tolosan (742) kolore gorrian daude. Osasun eremuei begira, berriz, Alegiakoa (521), Ibarrakoa (561), Tolosakoa (715) eta Villabonakoa (645) kolore gorrian daude. Baita, Tolosaldeko ESia (578) ere.

Momentu honetan, eta datorren astelehenean argitaratuko duten zerrenda iritsi bitarte, Tolosaldeko 11 herri daude eremu gorrian, eta datuak ikusita Osasun sailak kezka azaldu du. Izan ere, COVIDaren ondorioz 104 pertsona ospitaleratu zituzten herenegun, denera, 430 pertsona daudelarik Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ospitaleetan, eta COVIDa duten 127 pertsona ZIUn daude, duela astebate baino 66 gehiago eta duela bi aste baino 142 gehiago. ZIUetako oheen %46 okupatuta daude koronabirusarekin gaixotutakoe-kin.



Tolosako Beotibar frontoian ari dira txertaketa egiten. J. ARTUTXA DORRONSORO

Ildo horretan, Gotzone Sagar-
dui Osasun sailburuak ohartarazi du «hazkunde azkarra» izan duela COVID-19ak; «hilabete pasatxoan indize tasa metatua 220 puntu hazi da», esan du. Tasarik baxuena martxoaren 10ean izan zen, 100.000 biztanleko 200 kasurekin, eta apirilaren 4tik 11rako astean (Pazko astea) % 22 igo da, sailburuak azaldu duenez.

Oinarrizko birsorkuntza tasari buruz hitz egin du baita, Sagar-
duik, hau da, kasu positibo bakoitzak zenbat pertsona kutsatzen dituen neurtzen duen tasari

buruz eta jada «duela egun batzuetatik, 1,20 ingurukoa» dela azaldu du. Herenegun 1,23an kokatu zen.

TXERTAKETA

Txertaketari buruz hitz egin du Sagar-
duik, era berean. Orain arte 147.219 pertsonak hartu dituzte COVID-19aren aurkako txertoaren bi dosiak, hau da, %6,69k. Lehen dosia, berriz, 412.658 herri-
tarrek hartu dute, ia %18,75ek. Gainera, 80 urtetik gorako herri-
tar denek jaso dute txertoaren lehen dosia, etxetik irten ezinda daudenek izan ezik. Herenegun

Pfizerren 70.212 dosi jaso zituzte-
la esan du ere sailburuak eta atzo AstraZenecaren beste 6.000 iri-
tsiko zirela iragarri du. Gaur dosi bakarreko Janssen txertoaren lehen dosiak jasotzekoa da Eusko Jaurlaritza, baina, ikusi beharko noiz hasiko diren erabiltzen, horren banaketa atzeratu baitute EBn, AEBetako tronbo kasuak argitu artean.

Arrisku handiko pertsonak, 70-79 urte bitartekoak eta 60-69 urte bitartekoen txanda dela gaineratu du eta bigarren dosiak jartzen jarraituko dutela. Ez dute erabaki, hala ere, AstraZenecaren lehen dosia hartu duten 60 urtetik beherakoekin zer egingo duten eta hiru aukera daudela esan du; AstraZenecaren bigarren dosia ematea, bigarren dosirik ez ematea, edo beste botika etxe bateko txertoaren dosi bat jartzea. Espainiako Lurralde arteko Osasun Kontseiluan hartuko dute erabakia.

LABIREN BATZORDE TEKNIKOA

Bilakaera epidemiologikoarekin oso kezkatuta dago beraz, Osasun saila. Kutsatuen kurbak gorantz jarraitzen du eta azken hamalau egunetako intzidentzia metatua 420,15 kasukoa da Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, duela hilabete baino 220 puntu handiagoa. Datu horiek mahaian ziztuztela bildu zen atzo Labiren batzorde teknikoa eta datorren ostegunean, hilak 22, berriro biltzea adostu zuen. Oraingoz, ez dute aurreikusi LABI politikoa deitzea.

Amasako Hikak Repsol gidako eguzki bat lortu du

AMASA // Hika txakolindegia Repsol gidak banatzen duen eguzkia eskuratu du lehen aldiz. Aitortza hori bera jaso dute Kromatiko (Araba), Aitor Rauleaga (Bizkaia), Garena (Bizkaia), Horma Ondo (Bizkaia), Ola Martin Berasategi (Bizkaia) eta Amelia (Gipuzkoa) jatetxeek. Roberto Ruizek zuzentzen duen jatetxeak Donostian egin den aurkezpenean jaso du aitortza.

A-15 errepidea itxita egongo da hilaren 15etik 16ra

BERASTEGI // Belabieta tunelean obrak egin ahal izateko A-15 errepidea itxi egingo dute ibilgailu guztientzat, Iruñeko noranzkoan, bihar 22:00etatik hurrengo eguneko 06:00ak arte. Andoainen, Sorabilako lotunean, N-1 errepidean zehar jarraitu beharko dute, eta ondoren, GI-2130 errepidetik barrena Berastegin sartu ahalko dira berriro ere A-15 errepidean.

Pandemiak medikuntzan izan duen eragina aztergai

TOLOSA // Aste honetan zehar egiten ari diren COVID II batzarrean ari da parte hartzen Asuncion ospitalea. *Online* ari dira egiten eta pandemiak medikuntzan izan duen eragina ari dira lantzen. Asuncionek esan du ospitaleko profesionalak, laborategiko fakultatiboan taldea eta Barne Medikuntza zerbitzuko kideak ari direla parte hartzen eta lau ikerketa lan defendatuko dituztela. 200.000 bat osasun profesional biltzen dituzten hirurogeita hamazortzi elkarte zientifikok sustatu dute batzarra.

GUTUNA

Guk ez daukagu imajinatu beharrik

Egunero makina bat dei egiten dugu arrazoi ezberdinengatik: autoa martxan ez dabilelako, garbigailua izorratu delako edo lagun bat zoriontzeko, esate baterako. Beharrezkoa da telefonoa. Eta batzuetan hil ala bizikoa ere bai.

Imajinatu zure etxean ondoezik sentitzen zarela eta telefono

linea ez dabilela. Imajinatu larri dagoen lagun bat etxean duzula eta telefono linea ez dabilela. Imajinatu, 112ra deitu, anbulantzia zu artatzera joan, eta sorosleak medikuari ezin diola deitu telefono linea ez dabilelako. Imajinatu larrimin hori.

Guk ez daukagu imajinatu beharrik, azalean bizi izan dugulako. Izan ere, XXI. mendean sinisgaitza iruditu arren, Bedaion (Tolosa), telefono finkoa izorratuta egoten da hirutik bitan, az-

piegiturak ez direlako behar bezala zaindu eta telefono konpainiaren aldetik utzikeria handia dagoelako. Eta gainera, ez dago ia estaldurarik. Egin daitekeen dei bakarra 112 da.

Landa-eremuk herriarren bizi-kalitatea helburu, Tolosako Udalar-
i edo dagokionari, eskatzen diogu beharrezkoak diren neurriak hartzeko eta Bedaioko komunikazio-azpiegituraren sarea behin betiko konpontzeko.

Ane Aldalur Agirrezabala Bedaio

Kultur agenda osatzeko bilera egingo dute gaur

Erredakzioa Anoeta

Aurten ere ez da ohiko festarik izango Anoetan. Horren partez, ordea, egitarau berezia prestatuko dute maiatzean eta ekainean zeharrerako, eta bilera bat egingo dute bihar.

Helburua kultur-agenda oparoa osatzea dela aipatu du Pello

Estanga herriko alkateak. Biharko bileran bi txanda egingo dituzte: bata 18:00etan hasiko da, eta haurrentzako ekitaldien inguruan hitz egingo dute; bestea, berriz, 19:00etan hasiko da, eta jarduera orokorrak izango dituzte hizpide.

Biak ala biak Anoetako udal-
etxean egingo dituzte.



Turlach musika taldeko kideak eta Tolofolk jaialdiko antolatzaileak, igandean, Turlach taldeak eskainitako kontzertua amaitu berrian. JOSU ARTUTXA DORRONSORO

Kalitatez lortutako arrakastaren biharamuna

Pandemia bete-betean ospatu da Tolofolk jaialdiaren lehen edizioa; «apustu bat» izanik, «oso pozik» amaitu dutela esan dute antolatzaileek

Josu Artutxa Dorronsoro

Covid-19 gaitzak oraindik gure artean jarraitzen duen honetan eta, azken asteetan, egoerak okerrerrako joera hartu duenean ospatu da Tolofolk jaialdiaren lehen edizioa, hain justu, pasa den asteen. «Apustu sendo bat» zen antolatzaileentzat, baina «oso pozik» daudela aitortu dute.

2019ko parranda batean sortu zen ideia, kuadrilla ezberdinetako lagun batzuk elkartu zirenean. «Kultur bizitza genuen oinarrian, eta ederki ezagutzen genuen elkar. Erdi txantxetan hasi zen kontua, baina gerora, jaialdia aurrera eramateko elkarte bat sortzeko beharra etorri zen», gogoratu du Garikoitz Llobregat Jeajeaka elkarteko kideak.

Talde eragileko kideen profilak kontuan izanik, argi zuten folk jaialdi bat antolatu nahi zutela. «Kultur ekitaldi bikainak antolatzen dira hemen, baina folkak bazuen hutsune bat, eta Tolosan ikusgarritasuna galtzen ari zen. Akaso, apustu suizida samarra izan zela esan daiteke, baina serio heldu genion».

Behin jaialdia ospatzeko hautua eginda, pandemia bete-betean egitea egokitu zaie egitaraua osatzeari. «Nahiko argi genuen

bost eguneko ekitaldi bat izatea nahi genuela, asteburua tartean izango zuena. Gerora, taldeekin datak eta baldintzak adostea izan zen zailena. Gipuzkoan nahiz Euskal Herrian erreferenteak diren musikari eta talde asko daude, eta horietako batzuk izan dira gure artean. Kalitatezko gauzak eskaintzeko aukera handia dugu, eta gure kasuan, kalitatezko jaialdi bat egitea lortu dugula esango nuke».

OPOR ARRAKASTATSUAK

Bada, Euskal Herriko musikari onentsuenak ez ezik, nazioarteko artistak ere ekarri dituzte Tolosara. Guztiak ere, «harridura puntu batekin» geratu direla aitortu du Llobregatek. Gainera, gehienek goraiatu dute egoera honetan jaialdia aurrera eramateko izandako adorea eta egindako esfortzua. «Emanaldi guztiak kalitatezkoak izan dira, eta artistak oso gustura etorri dira, batez ere, azken urtean euren lanak erakusteko ia aukerarik izan ez dutelako». Besteak beste, Oreka TX taldeak eskainitako kontzertua nabarmendu du. «Zoragarria izan zen, oso ondo prestatutako ikuskizuna. Zuten guztia eman zuten, eta ikusleok ere nabaritu genuen.



Oreka TX taldeak 'Koklean' ikuskizuna eskaini zuen Leidorren. J.A.D.



Luis Antonio Pedraza zamorarra izan zen nazioarteko artistetako bat. J.A.D.

Antolatzaileentzat opor astea izan da Pazko astea. «Guztiok ados gaude opor zoragarriak izan direla. Ez da bereziki gogorra izan; nekatuta amaitu dugu, baina oso gustura gaude. Gauza polit asko izan dira, baina noski, baita hutsuneak, akatsak edo zer hobetuak ere. Hotzean azertu behar dugun arren, Tolosan folk jaialdi bat ospatzeari posible dela, eta batez ere, garai hauetan kultur ekimenak egin daitezkeela erakutsi dugu, betiere, segurtasunez egiten bada. Oro har, jaialdi arrakastatsua izan da».

Musika jaialdian, ordea, publikoaren erantzunak marratu ohi du arrakastarako bidea. Bada, Llobregaten esanetan, «bikaina» izan da ikusleen emaria. «Kalkulu azkar bat eginda, 1.200 lagun baino gehiagok gozatu dute jaialdiaz. Ia aulki guztiak bete dituzte, eta zutik ere askok jarraitu dituzte kontzertuak. Berziki, terrazetan egon zirenak eskertu nahi ditugu, tabernak ixtean, izandako jarrera ereduagarrigatik. Gure aldetik, bage-nuen zalantza apur bat».

Baina eskerrak ematen hasita, Llobregatek ez ditu ahaztu nahi egun guzti hauetan boluntario lanetan aritu direnak, «aukera eman eta gudan sinistu zutelako», ezta jaialdiaren babesleak ere, «emandako laguntzaz gain, artistak hain ondo zaintzeagatik». Aurrerantzean, jaialdian lan egiteko gogoz dagoen edonork, ateak zabalik izango dituela aitortu du. «Oso gustura hartuko dugu gure familian».

GINGA, HERRIKO ARTISTEK

Ziurrenik, igandea izan zen egun bereziena. Azken kontzertuak, jaialdia goren-gorenean amaitzeko gogo eta bertako artisten presentzia batu zituen. Goizean, Udal Txistulari Bandaren saioa izan zen; arratsaldean, berriz, Turlach taldearena. Une batean, oholtzan zeuden sei musikariek hiru ziren tolosarrak, eta horiei, herriko musikari gehiago eta dantzariak batu zitzaizkien.

Jaialdiarekin hasi aurretik ere, antolatzaileek argi zuten jarraitpena izango zuen ekimena izango zela, eta igandeko kontzertuaren amaieran baieztatu zuten datorren urtean ere ospatuko dela. «Bagenekien ibilbide baten hasiera zela, eta sortu den interesa ikusi ondoren, segida emango diogu». Aurtengo edizioarekin, pena bakarra du Llobregatek: «Sentsazio arraro bat daukagu, jaialdia amaitu eta biharamunik ez dugulako; ez baitago horrelako jaialdiak otordu batekin amaitzea bezalakorik».

Ur Kontsortzioaren esku geratu da Lizartzako uren kudeaketa osoa

Lizartzako Udalak 700.000 euroko aurrekontua izango du 2021erako; ohiko gastuak mantendu egin nahi izan dituzte eta murrizketak egin behar izan dituzte inbertsioetan

Irati Saizar Artola Lizartza

Urte amaieran egindako osoko bilkuran onartu zuen Lizartzako Udalak 2021erako aurrekontua. Zehazki, 700.000 euro izango dituzte urtea amaitu bitartean. Iñaki Azpiroz alkateak azaldu duenez, iaiztik jaitsiera izan du aurrekontuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen foru funtsean ere jaitsiera izan dutelako. Hala ere, ohiko diru partidak mantendu egin nahi izan dituzte eta inbertsioetara bideratutako partidari murrizketa nabarmena egin behar izan dute, zeroan utziz.

«Esfortzu handia egin behar izan dugu; ohiko gastuak mantendu nahi bagenituen, inbertsioetarako dirurik gabe gertatzen ginen, baina soberakina badaukagula kontuan hartuta, hortik tiraka kreditu aldaketak eginez egingo ditugu inbertsioak», azaldu du Azpiroz. Izan ere, esaterako, herriko eragileak azken aldiaren egiten ari diren lana goraiatu du alkateak, besteak beste, Kalamatrike euskara eta kultura taldea eta Otsabio kirol elkarteak aipatu ditu, «sekulako lana» egiten ari direlako: «Gauza bat inbertsio teknikoak dira, baina herriari benetako bizia ematen dietenak herriko eragileek antolatzen dituzten ekimenak dira; herria oso ondo ari da erantzuten eta ezinbestean zutabe ekonomikoa beharrezkoa dute». Horri eusten saiatu nahi du udalak.

AURTENGOLANAK

Azken 20 urte ingurutan herriko ur depositua eta saneamenduko kontrola Ur Kontsortzioak zuen eta handik ateratzen zena herrian banatzea eta saneatzea udalaren esku zegoen. Apirilaren 1etik aurrera, ordea, zerbitzu integrala Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku geratu da. Azpiroz azaldu duenez, «erdi-purdi zeuden kontadoreak zirela edo dena delako guztien diferentziala udalak bere gain hartzen zuen eta urtean 30 mila euro inguruko defizita izaten genuen».



Eskolaren aferarekin amaitzeko, udaletxea eskola bilakatzea da Lizartzako Udala aztertzen ari den proposamena. I.S.A.

Hori dela eta kudeaketa osoa Ur Kontsortzioaren esku uztea erabaki dute. Herritarrei faktura zertxobait garestituko zaienez, trantsizio moduko bat egitea pentsatu dute ondorengo lau urteetan: «Hobariaren sistema bat jarri dugu martxan: herritarrek udalari ordainduko lioketena eta orain kontsortzioari ordaindu beharko diotenaren arteko diferentzia hartu dugu kontuan». Hori horrela, aurtengo, diferentzia horren %75 udalak hartuko du bere gain eta %25 ordainduko

dute herritarrek. Datorren urtean, %50 ordainduko du bai udalak eta baita herritarrak ere, eta bi urte barru, %25 udalaren kontu eta %75 herritararen kontu izango da. Hiru urtera, berriz, guztia herritararen kontura joango da.

Industriaguneko ur kudeaketaren kontrola ere Ur Kontsortzioak izango du aurrerantzean, eta egun, udala kontsortzioarekin harremanetan dago araztegia non jarri zehazteko.

Bestalde, energia eraginkortasunaren alde lanean jarraitu nahi du udalak eta herriko argiteria publikoa LEDera aldatzea erabaki dute. Horrela, argiteriaren kontsumoa %62 murriztu nahi dute. Kreditu aldaketa bidez ordaindu ahal izan dute instalazioa eta guztira 64.432 euroko kostua izan du.

Energiaren gaiarekin lotuta, iaz, eskola eta udala panel fotovoltaikoekin hornitzeko proiektua egin zuten, eta mediku etxean ere panel berdinak jarri zituzten. Bada, aurtengo, mediku

bertsioetara begira «puntu garrantzitsu bat» izan daitekeena: «Gure proposamena da udala dagoen eraikina eskola bilakatzea eta udalaren zerbitzua Alondigara mugitzea. Proposamen hori aurrera ateratzeko buru-belarri lan egingo dugu, izan ere, momentuz aukera logiko bakarra horixe da».

Era berean, sailburuaren jarrera «sekulakoa» izan zela esan du alkateak: «Sintonia ona daukagu. Jakitun ziren zein egoeratan gauden, eta ea elkarrekin zerbaiteko moduan garen».

etxeko panelak bikoiztu egin dituzte. Alkateak azaldu duenez, helburua udalaren jabetzakoak diren eraikinak energia berriztagarritz hornitzea da. Panel horiek sortzen duten energia momentuan bertan kontsumitzeko erabiltzen dute, ez da pilatzen, eta momentuz, bost kontagailutan dute eragina. Instalazio guztia amaitu dute dagoeneko, eta «paper kontuak» falta zaizkiela zehaztu du Azpiroz.

Hondakinetan ere izango dute aldaketa aurtengo. Zehazki, konpostagailuaren gaia birbidertzen ari da udala. Joseba Sanchez nekazaritza ingeniariaren laguntza jasotzen ari dira horretarako, eta berak proposatutako aldaketekin inbertsio bat egingo dute. Konpostagailu berriak ezarriko dira eta ondoan iturriak jarriko dituzte. Orain artean dauden guneak mantendu egingo dituzte, soilik aldaketa teknikoak dira egingo dituztenak. «Udaletik, gure ahalegina, konpostagailuen gaineko kontrola hobetzea izango da, herrian sortzen duguna herrian kudeatzen jarraitzeko eta eraginkorragoak izateko».

Horrez gain, urte honetan zehar, Araxes erreka inguruan dauden kobazuloen inguruko azterketa bat egingo du Aranzadi Zientzia Elkartek. «Indusketak egingo dituzte, auzolandegien bidez», zehaztu du alkateak. Ondoren jendaurreko emanaldi batzuk ere egingo dituzte lanak aurrera joan ahala. «Herrian zer daukagun ere ez dugu ezagutzen, eta Aranzadiren laguntzari esker, horretarako aukera izango dugu».

Gainerakoan, iaz hasitako proiektu batek ere izan du jarraipena. Herriko artxiboa berrantolatzea lanak egin ziren, eta artxiboa dagoen gelaren erdiari beste erabilera bat emango diote aurrerantzean: gela isila jarri dute, ikasi nahi dutenek, etxetik kanpora gune isil bat izan dezaten. Astegunez, udaletxea irekita dagoen bitartean erabili ahal da, eta asteburuetan ere zerbitzua eskainiko dute.

JOKIN BILDARRATZ SAILBURUAREN BISITA ESKOLARA

Duela hilabete inguru, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuaren bisita jaso zuten Lizartzan. Urte asko daramatzate eskolaren egoera dela eta borrokan: «Hezkuntza sailetik esan digutenez, Gipuzkoako eskolarik prekarioenetako bat da gurea». Kontua da, Lizartzako herriaren kokapenagatik, aldapa hasi bi-

tartekoa, herri gunea, inundagarria dela. «Arazo serio bat daukagu: inundagarritasun kota hori jaisteko inbertsioa ez bada egiten, sekulako arazoak izango ditugu eraikin berriak egiteko, eta zer esanik ez zerbitzu publiko bideratutako eraikinak egiteko; guk gastu hori ezin dugu gure gain hartu eta ur agentziarekin hizketan ari gara», kontatu du Azpiroz.

Lizartzako Udalak «arazo ugari» ikusten ditu beste eraikin bat eraiki ahal izateko, beraz, bada beste proposamen bat aurrera begirako in-

Tolosa CF-ko gimnastek koska bat gora egin dute lehen mailan

Gimnastika erritmikoko Espainiako Txapelketan laugarren postua lortu dute, orain arteko onena; urtebetez aurrez aurreko txapelketarik egin gabe zeuden



Lehen mailako taldea: Aitane Goikoetxea, June Azpiazu, Ismene Agirre, Irene Arbeloa, Ane Alustiza eta Mara Herrera. TOLOSA CF

Imanol Garcia Landa Tolosa

Urtebete ondoren, Tolosa CF-ko gimnastek azkenean lortu dute txapelketa batean parte hartzea. Lehen mailakoek laugarren postua lortu berri dute gimnastika erritmikoko Espainiako Txapelketan, Valentzian, orain arte lortutako emaitzarik onena maila horretan. Bigarren urtea da maila gorenean dagoela kluba, eta aurrekoan bosgarren izan ondoren, orain beste koska bat gora egin dute. Sei gimnastek osatzen dute lehen mailako taldea: Ismene Agirre, Aitane Goikoetxea, Ane Alustiza, Mara Herrera, Irene Arbeloa eta June Azpiazu. «Gimnasta hauentzat lehen aldia izanik, iazko emaitzak hobetu dira, eta gauzak ondo egiten

ari garen seinale da hori», azaldu dute Tolosa CF-tik. «Gimnasta, familia eta klubeko kide guztiak oso pozik eta harro gaude egiten ari garen lanarekin. Esfortzua- ren saria da beste urte betez Espainia mailako talde hoberenen artean egotea».

Urtebetez txapelketa batean parte hartu gabe egotea zaila izan da taldeko kideentzat. «Gizartean bizitzen ari garena ez da batere erraza gimnasta hauen adinarekin elkartzeko badugu. Hala eta guztiz ere, motibazioa mantendu dute eta beren lana Valentzian erakusteko aukera izatea izan da beraientzat saririk onena. Kontuan izan behar da, gainera, debuta izan dela lehen mailan sei gimnastentzat», zehaztu dute klubetik.



Denboraldi honetan junior mailan ari den taldea: Ane Barandiaran, Maite Iturrioz, Ahetze Olano, Aroa Zugasti, Saioa Zeberio eta June Bengoetxea. TOLOSA CF

Espainiako Txapelketan ere infantilen debuta izan da absolutu mailan. June Bengoetxea, Aroa Zugasti, Saioa Zeberio, Maite Iturrioz, Ane Barandiaran eta Ahetze Olano dira talde horretako gimnastak, eta 10. postua lortu zuten. «Hauentzat ere urteko unerik politena izan da itzultzea. Kontuan izan behar da, iazko martxotik ez dutela aurrez aurreko lehiaketarik izan, eta horrek beldurra eta urduritasuna areagotu du. Baina, ez da nahikoa izan, momentu guztiez gozatze-ko. Akatsak izan ziren, baina urteko erronka bertan izatea zen», azaldu dute.

Bere aldetik, entrenatzaileek esan dute plangintza aldetik oso denboraldi zaila izan dela. Kirol horretan plangintzak errespetat-

tzea funtsezkoa dela diote, maila horretako txapelketetara hobe- kien iristeko. Hortaz, aldaketa asko egin behar izan dituzte. «Gainera, motibazioarekin eta ezjakintasunarekin lehiatu behar izan dugu. Data ezarrita zegoen baina beste zenbaitetan ere jarrita zegoen eta bertan behera geratu da», zehaztu dute entrenatzaileek. Egoerari aurre egiteko, bi hilabetez Internet bidez antolatu diren lehiaketetan parte hartzeko aukera izan dute. «Honela, gimnastek ahalik eta gertuen sentitu dituzte tapizean lana erakusten izaten diren sentsazioak».

Hasiera batean urtarrian ziren egitekoa Espainiako Txapelketa. Bertan behera geratu zen, eta azkenean martxoan egin

dute. «Data ezagutzeari gimnasten eta entrenatzaileen motibazioa areagotu egin zen», azaldu dute klubetik. «Gimnasiaz asko gozatzen dute entrenamenduetan, baina lehiatzea ere gustuko dute. Publikoa faltan sumatu zutela diote gimnastek. Zortez, gure gimnastak non, gure afizioa han».

ARIKETA BERRIAK PRESTATZEN

Prestatzeko denbora gutxi izanik, ariketa berria aurkeztu behar baitute, ostiral honetan denboraldi honetan lehen kontrola dute, Tolosan bertan. Kontrol horretan Gipuzkoako epaileek ariketa berriak ikusi, aztertu eta baloratzen dituzte. Ondoren beren gomendioak eta iradokizunak entzun eta entrenatzaileek kontuan hartzen dituzte ariketa hobetzeko asmoz. Ondoren, apirilaren 25ean izango da Espainiako Taldekako Lehen Koparako sailkapena, Durangon. Taldekako kopan parte hartu nahi duten euskal talde guztiak aurkeztu dira, eta sailkapen orokorreko lehen bi taldeek lortzen dute kopan parte hartzeko txartela. Espainiako Taldekako Kopako lehen fasea ekainaren 5 eta 6ko asteburuan izango da. Bigarren fasea uztailaren 16an eta 17an egingo da.

Lehen mailan taldearen ariketa berria hiru zinta eta bi pilota erabiliz izango da. Beste taldea, aurtengo dagoeneko infantil mailatik junior mailara pasa direnak, bi zinta eta hiru uztaiekin ari dira lanean. «Lan handia egiten ari dira. Hiru aste izan dituzte txipa aldatu, ariketa berria prestatu eta lana aurrera ateratzeko», azaldu dute entrenatzaileek.

Beste mailetako taldeei dago- kionez, aurtengo ikasturtean as- tero plangintza egiten dute mo- mentuko egoeraren arabera. Au- rrez aurre edota Internet bidezko saioak egiten ari dira.

Hilberriak eta urteurrenak



-ESKER ONAK-

Joakina Zubillaga Agirrezabala

Apirilaren 5ean hil zen, 92 urte zituela.
(Juan Inazio Agirrezabalaren alarguna)

-Goian Bego-

Familiak eskerrak eman nahi dizkizue une zail hauetan babesa eta laguntza eman diguzuen guztiei.

BEDAION, 2021eko apirilaren 14ean

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

**ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN**

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€	• Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 €	• Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 €	• Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Garrido eta Zubeldia, eskarmentua gehituz Espainiako selekzioan

«Oso gustura» izan dira Nahia Garrido igerilaria eta Joseba Zubeldia teknikaria infantil mailako egonaldian

Imanol Garcia Landa

Tolosaldea IKTko Nahia Garrido igerilaria eta Joseba Zubeldia teknikaria infantil mailako Espainiako selekzioaren egonaldian izan dira orain gutxi. Nazioarteko txapelketetarako gutxienekoak ezartzen ditu Espainiako Federazioak, eta Mediterraneoan Cup txapelketarako egonaldia prestatu zuten, nahiz eta azkenean proba hori atzeratu eta ziurrenik irailean egingo den. Malagan izan ziren Espainiako Txapelketan Tolosaldea IKTko bost igerilari, orain dela bost aste inguru, eta Garridok gutxienekoak lortu zituen, eta horregatik parte hartu zuen egonaldian. «Ezusteakoa izan zen niri ere deitzea bertan izateko», azaldu du Zubeldiak. «Tarteka klubetako entrenatzaileak eramaten dituzte, selekzioaren talde teknikoaren laguntzaile izateko, eta dirudienez arduradunak errotazio moduko bat egin nahi du eta oraingoan guri egokitu zaigu».

Egonaldian «oso gustura» egon direla azaldu du Zubeldiak. «Nahiko intentsua ere izan da. Goiz eta arratsalde entrenatzen genuen, ia denbora guztian uretan. Lehorreko saioak egiten ziren, eta psikologoarekin ere jarduera dezente egiten zituzten. Ez ginen gelditzen: goizeko seieta jaiki eta iluntzera arte dena emanda aritu ginen». Zubeldiaren kasuan entrenamenduak aurrera eramaten laguntzen zuen, besteak beste, denborak hartu eta azalpenak ematen. «Bestalde, kontu bitxi bat ere izan zen. Egoitzatik igerilekura bizikletaz joaten ginen, eta arraroa badiurdi ere, igerilari askok ez zekiten bizikletan ibiltzen, eta hor laguntzea ere tokatu zitzaigun».

Garridok Espainiako Txapelketan bizkar estiloen bi domina lortu zituen, 100 eta 200 metrotan zehazki, eta bi proba horietan lortu zituen nazioarteko probetan lehiatzeko gutxieneko denborak. «Oso gustura gaude



Joseba Zubeldia eta Nahia Garrido. TOLOSALDEAIKT



Maddi eta Eneko Barriola, Beñat Bidaola entrenatzailearekin. TOLOSALDEAIKT

klubeko igerilari bat horrelako maila batean dagoela ikusita», esan du Zubeldiak. «Infantil taldea da gehien lehiatu dena eta dezente igo du bere maila. Espainiako Txapelketara joateko aukera oso murriztua zegoen, klubetik bost igerilari joan ziren, eta finalista postu mordo bat lortu zituzten. Jauzi bat egin dugu».

Egonaldian «beste dimentsio bat» ikusi dutela gaineratu du Zubeldiak. «Askotan konplexua dugu eta pixka bat ikara ematen du gehiago entrenatzeak; gehiegizko ikusten da. Bada, guk han ikusi dugu dezente gehiago entrenatzen dutela. Beste bolumen eta konpromiso bat ikusi dugu. Ea bizitako esperientzia horretatik zerbait eraman dezakegun klubera».

BARRIOLA ANAI-ARREBAK

Eneko eta Maddi Barriola anai-arrebek martxoan parte hartu zuten Espainiako Txapelketan,

absolutu mailan. Bertan Beñat Bidaola teknikariarekin izan ziren. Enekok 100 metro eta 200 metro bizkar estiloko probetan parte hartu zuen, eta Maddik 200 metro tximeleta estiloan. «Ez zen beraien ibilbideko txapelketarik onena izan, baina meritua handia dute, txapelketara sailkatzea oso zaila zegoelako, eta beren maila handia dela erakutsi dute hori lortuz», azaldu du Zubeldiak.

Tolosaldea IKTkoen hurrengo txapelketa Euskal Herriko Kopa izango da, hilaren 24 eta 25ean jokatu dena. Bertan taldeka lehiatuko dira Hegoaldeko lau herrialdeetako zortzi klub onenak, nesketan zein mutiletan. «Gure txapelketa kuttuna da, urteroko kalitatea neurtzeko termometro on bat», esan du Zubeldiak. «Nahiko emaitza politak lortu izan ditugu azken urteotan, eta aurrean ere asmo horrekin joango gara».

Erik Jakak Baikorekin sinatu du

Erredakzioa Lizartza

Baikok, Aspek eta Erik Jakak lortutako akordioaren ondoren, buruz buruko txapeldunak Baikorekin jokatu du maiatzaren 1etik aurrera. Lizartzako aurrelariak, beraz, Asperekin zuen kontratua eten du eta Baiko Pilotarekin akordio berri bat sinatu du, 2024ko abenduaren 31ra arte luzatuko dena. Jakak apirilaren 24an jokatu du azken partida Asperekin Logroñon eta zazpi egunera Baikoko koadroa osatuko du.

Jakak 2013an egin zuen debuta profesionalean 19 urterekin eta egungo buruz buruko txapelduna eta Lau eta Erdiko Txapelketako txapeldunordea da. «Pozik» azaldu da lizartzarra, «erronka berri bat» hasten duela bere kirol ibilbidean. «Aurretik zortzi urte oso politak eman ditut Asperekin jokatzeko, eta orain Baiko Pilotako pilotaria



Erik Jakak, Baikorekin hitzarmena sinatzen. BAIKO

izango naiz. Ilusioz gainezka nago erronka berri honi ekiteko». Hain justu, Jakak gaineratu du «ilusio handia sortzen duten txapelketak» datozela eta bere asmoa «Aspeko azken urteetan emandako kirol maila hobetzea» dela adierazi du.

Xare txapelketak abian jarriko dira berriro Iruran

Erredakzioa Irura

Urte osoa xare txapelketarik gabe igaro ostean, gaur ekingo diote berriro Ametsa elkarteak pilotariak maila desberdinetako txapelketek Irurako Ametsa Trinetean. Jubenil eta nagusi mailakoek, Gipuzkoako Txapelketak izango dituzte jokoan; gaztetxo, gazte eta emakumezkoek, berriz, Irurako I. Xare Irekiak.

Lehenik eta behin, maila bakoitzean ligaxka bat jokatu dute, eta apirilaren 30ean amaitu eta gero, maiatzaren 8an finalerdiak jokatu dituzte. Finalak, berriz, maiatzaren 15ean. Gaztetxo eta gazte mailakoak, goizez, eta jubencil eta emakumezkoak, arratsaldean. Nagusi mailakoa, berriz, maiatzaren 22an, arratsaldean, jokatu dute.

Gaur hasiko dira partidak, eta bi neurketa jokatu dituzte, 17:15ean hasita, biak gaztetxo mailan: Ametsa 1 (Gibelalde-Etxeberria) eta Ametsa 2 (Murua I-Calonge), eta Ametsa 3 (Murua II-Arsuaga) eta Ametsa 4 (Yarzamelon). Bihar partida bat jokatu dute, 18:00etan hasita, gazteen mailan: Ametsa 2 (Oier-Heras) eta Ametsa 3 (Galartza-Aristi). Etzi lau partida izango dira: 17:15ean, emakumezkoen mailan, Ametsa 1 (Galartza-Isasi) eta Ametsa 3 (Mujika-Gorriti); 18:15ean hasita, jubencilen, Ametsa 1 (Yeregi-Mujika) eta Ametsa 3 (Mendizabal-Isasa), eta Ametsa 2 (Zabalegi-Iturbe) eta Ametsa 4 (Montero-Huitzi); 20:15ean, maila nagusian, Ametsa 1 (Apeztegia I-Sainz) eta Ametsa 2 (Santano-Apeztegia II).



ASTEAZKENA, 2021EKO APIRILAK 14
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

ASTEAZKENA 14

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Iratzar fundazioko Andoni Olariagak Burujabetzaren egungo korapiloak izeneko hitzaldia eskainiko du, eragileen lokalean, 18:30ean.
Irura. Irakurle taldea elkartuko da, 18:30ean, liburutegian. Jakin aldizkari-ko 233-234 zenbakiko Lorea Agirrerren *Maitasuna maitasuna baino askoz gehiago* da artikulua irakurriko dute, Lorea Agirre bertan dela.

Erakusketak

Irura. Irurako emakume taldeak antolatuta, *Balio erantzia: edertasunari buruzko gogoeta* erakusketa, eskolako aretoan.
Tolosa. 1970-2020 Burgosko Prozesua erakusketa, Aranburu jauregian.
Tolosa. Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak, Topic-en.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean (EraBatera eta Sergio Ibarrola)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Guka magazina
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Lehen lerroan

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina Asier Imazek gidatuta: eguraldia, albisteak, kolaboratzaileak...
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratrien artean eginiko arratsaldeko magazina.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aramburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro ederra. Berriro ere, zeruan erdi eta goimailako hodei batzuk agertuko dira, non zeruari kolore zurixka emango dioten. Hala ere, ez dute bestelako ondorioirik ekarriko eta giroa argia izango da. Haizeak eki/ipar-ekialdetik jotzen jarraituko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 16-17 graduan joz goia.



Bihar. Eguraldi ederrarekin jarraituko dugu. Egun osoz zeruan urdina nagusituko da, nahiz eta, uneren batean hegoaldeko hodeiren bat edo beste sartuko den. Haizeak ipar-ekialdetik ahul joko du eta tenperaturaren ez da aldatu izango, maximoak 16-17 graduan geratuz.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Euskal Herria plazako lanekin hasiko dira

Topic museoa dagoen aldean hasiko dira zoladura berritzen; hamabost asteko iraupena izango dutela lanek aurreikusi dute

Josu Artutxa Tolosa

Aste honetan emango zaie hasiera Euskal Herria plazako arkupe azpiko zorua berritzeko lanei, Topic museoko eta Bide-Bide ostalaritza zerbitzua dauden arkupeko aldetik hasita. Atzo hasi ziren obrarako etxolak jartzen, eta datozen egunetan obra-itxidura jarri eta aipatutako eremuan zoladura eraisteko lanei ekingo diete.

Lau fasetan gauzatuko dira lanak, eta bizilagun eta herritarren artean ahalik eta eragozpen gutxien sortu nahi dute. Horregatik, eraikinetarako sarrera bermatuta egongo da uneoro, eta plazarako hiru sarbideetatik bi irekita egongo dira obrek irauten duten bitartean. Gainera, ez da zerbitzu-sareen mozketarik aurreikusten.

Arkupeetako zorua berritzearekin batera, hiri altzariak (eserlekuak eta iturria) eta saneamendu sareko hartuneak berritu, eta sare elektrikoaren kanalizazio osagarria gauzatuko dute. Fase bakoitzean, arkupeen alde bat berrituko dute hurrenkera honetan: Topic museoarekin aldekoa, Antonio Lekuona kalearen aldekoa, Andia kalearen aldekoa eta Rondilla kalearen aldekoa. Azken fase batean, obraren eremu osoko amaierako lanak egingo



Euskal Herria plazako zorua berrituko dute. ATARIA

dituzte. Guztira, hamabost asteko iraupena izango dutela lanek aurreikusten dute, eta 271.000 euroko aurrekontua dute.

Udala herriko eremu ezberdinek eraberritzeko egiten ari den «ahalegin eta plangintzaren baitan» kokatzen da Euskal Herria

plazako arkupe azpiko zoladuren berritzea, «tolosarreko herri garbia, atsegina eta zaindua eskaintzea» helburu hartuta, «dagoena balioan jarri eta mantentzeko lanak gauzatu, espazio publikoa egoera onean mantentzeko».

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

www.ataria.eus · 107.6 fm ·



zozketak

Atarikideentzat **bi liburu** ditugu



EMARIAK: Emakumeek Historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus